



DUELA 100 URTE EZAGUTU ZUTEN GUREAN ESKIA

Urteurrena gogoratzeko, hitzaldiak eta afari bilkura izango dira, gaur, bihar eta etzi, Tolosan eta Lekunberrin > 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-03-05**

VIURTEA 1.378.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Emakume nabarmenei buruz egindako erakusketa dago ikusgai Anoetako kiroldegian. LHko eta DBHko ikasleek egin dute. IMANOL GARCIA

BERDINTASUNA HELBURU LAN HANDIA EGITEAR

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari antolatu dituzte bi eskualdeetako herrietan, gaur hasi eta martxoaren 13ra arte > 5

Merkatu Txikia egiteko material bilketa egiten ari da Amaroazko auzo elkarte

TOLOSA Nikaraguako heziketa proiektu bat laguntzeko izango da > 3

Saskibaloi teknifikaziorako jardunaldiak antolatu dituzte gazteentzat

TOLOSA Hilaren 16an izango da, Usabal kiroldegian beheko kantxan > 3

Arrakastatsua izan da Beterriko I. Bertsolari Txapelketa

TOLOSALDEA Ttottonondegitar taldeak irabazi du; «lehia sanao izan da», dio Agirrek > 6

Eneko Galarragaren aurkako euroagindua onartu dute

VILLABONA Hamar eguneko epean atxilotu dezakete > 6

MARTXOM 7 OSTRALA *independentzia eguna* *musika, kultura*
7etan Trianguloan Tolosan **ABSTENTZIOA**

JOXEMI SAIZAR

Eskiak 100 urte betetzen ditu gaur gure inguruan. Argazkiko tolosar horiek izan ziren lehenak. Eta hori gogoratzeko, hainbat ekitaldi izango dira gaur, bihar eta etzi. Kirol honen hasierak gure eskualdean, garapena eta gaur egungo egoera azaltzen saiatuko gara artikulu honetan.

Norvegiarrekin oso hestu lotuta dago eskia Tolosaldean. Mustad lantegia ireki zutenean, bere herrialdeko kirola praktikatzeko hasi ziren inguruko mendietan, elurteak aprobetxatuz, eta pixkanaka haien kirola tolosarren artean sustaritu egin zuten. Handik gutxira, 1909an, Ski Club Tolosano sortu zuten eskiazaile haiek, estatuko lehena. Eta irteerak antolatzen eta konpetizioetan parte hartzen hasi ziren, batez ere jautzetan. Besteak beste, Eaux-Bonnes-eko (Frantzia) nazioarteko lehiaketan behin baino gehiagotan parte hartu zuten eta Berastegin ere antolatu zituzten.

1911ko otsailaren 19an Elkarte Pirineisten XVIII. Kongresoa antolatu zuten Tolosan. Munduko eta Espainiako gerrateetan etenak izan zituen elkarteak. 1930ean Euskal Herriko lehen eski txapelketak antolatu zituen. 1932an irteera antolatu zuten Austriara eta handik bi urtera Suitzara. 1934an Hotel Candanchu inauguratu zuten. Gerran militarizatu egin zuten eta 1940ean saldu.

Erreleboa eta iraupen eskia

Norvegiarrek sustatutako kirolak jarraipena izan du gaur egun arte. Katea ez da eten. Esquiaren ohiko modalitateak (alpino, iraupena eta mendikoa) praktikatu izan dira, eta baita garai berrietan sortutakoak (snowboard, triatloia) ere. Ehundaka edo milaka eskiazaile izango dira gaur egun Tolosaldean eta Leitzaldean.

Denetatik, konpetizio mailan arrakasta handienak ekarri dituenak eskualdera iraupen eskia izan da. Ski Club Tolosanoren erreleboa, nolabait esateko, Alpino Uzturre elkarteak hartu zuen 50. hamarkadan. Autobusa elurretara antolatzen (Aralarrera elurra zegoenean, ondoren urrutago), ikastaroak antolatzen eta konpetizioak antolatzen (Espainiako Txapelketa 1969an, adibidez) eta parte hartzen aritu da. Oargi elkarteare aritu izan da aktibitate horietan.

Alpino Uzturre, Oargi eta bi hauen zatiketa baten ondoren sortu zen Uztargi elkarteak kide hauek goi mailara iritsi izan dira, besteak beste: hasierako urteetan David Hernandez, Antonio Lobo, Jose Luis Lekuona eta Juan Laredo; hurrengo belaunaldian Anjel Ortiz, Dina Bilbao, Garbiñe Alkorta, Haritz Zunzunegi, Eneritz Gorostidi, Mireia Salazar, Ilazki Lekuona, Iker eta Miren Arregi; eta azken urte hauetan Joseba eta Imanol Rojo. Horien artean, bereziki aipatu behar dira Europa mailan aritu ziren Ortiz eta Alkorta, Olinpiar Jokoetan parte hartu

Duela 100 urte, gaurko egunean, eski batzuk jantzi eta elurretan ibili ziren tolosar batzuk Mustad enpresako norvegiarrek bultzatuta eta erakutsita; hori ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun hauetan.

Eskiaren 100 urteak



1908ko martxoaren 5ean Lekunberri inguruan; ezkerretik hasita, Polikarpo Elosegi, Aimond Enebok, Jenaro Ruiz de Arkaute, Jose Eizagirre, Ramon Irazusta eta Ixaka Lopez-Mendizabal eskiazaileak. '...CUANDO EL ESQUI COMIENZA' LIBURUTIK

zuen Zunzunegi eta aste honetan bertan Italian junior mailako Munduko Txapelketetan parte hartu duten Rojo anaiaik.

Konpetizioaz gain, bidaiatzeko eta eskizeharkaldiak egiteko aprobetxatu dute batzuk. Hala nola, 1974an Laponia zeharkatu zuten

eskiz David Hernandez, Jose Luis Lekuona, Mikel Zabala eta Antxon Bandres tolosarrek beste lagun batzuekin batera. Eta 1988an Groenlandia zeharkatu zuten Anjel Ortiz, Nekane Urkia, Josu Iztueta, Dina Bilbao eta Txiki Plazasek.

Nazioarteko martxa luze eta

jendetsuetan ere eskualdeko eskiazaile ugari izan da urte hauetan: Kataluniako Beret, Suediako Vasaloppet, Itaiako Marcialonga, Suitzako Engadin, Frantziako Transjurassienne... Norvegiarren eski izpiritua bizirik dirau Tolosan eta bere inguruan.



Norvegiarren omenezko oroitarria lurte osoan, Mustad-en lekuan. I.S.

» EKITALDIAK

■ **Gaur, asteazkena.** 20:00. 'La historia del esquí en el País Vasco'. Francisco Tuduri Esnal tolosarra, 'Cuando el esquí comienza' liburuaren egilea. Tolosako udal batzar aretoa.

■ **Bihar, osteguna.** 20:00. 'Eskia gaur egun': Isabel Dumall (eski nordikoa eta triatloi zuria, Espainiako txapeliduna bietan), Joseba Ormazabal (mendiko eskia, Euskal Herriko txapeliduna), Mikel Troitño (snow board, monitorea eta gida), Josu Iztueta (elur-espedizioak, bidaiaria). Moderatzailea: Aitor Elduaizen kazetaria. Tolosako udal batzar aretoa.

■ **Etzi, ostirala.** 21:00. Afari-bilkura Lekunberriko Ayestaran hotelen. 'Atzo eta gaurko eskilariak, era guztietako eskia'. Izen-ematea: 670 029 898 (Ane) eta 943 28 86 52 (Alberto).

«Hasieran hanka haustea erraza zen»

JESUS MARIA AZURZA » Ski Club Tolosano-ko idazkari ohia

Eskia » Ski Club Tolosanok elurretara joateko joateko zaletasuna mantendu zuen 1909tik 1963an desagertu zen arte.

JSAIZAR

Azken urteetan Jesus Maria Azurza (Tolosa 1932) izan zen elkartearen idazkaria eta harekin hitz egin dugu, bere historia ezagutzeko.

Nola murgildu zinen eski munduan?

Anaiarengatik. Lehen aldia 12-13 urterekin Leaburun, Otarre base-riaren inguruan.

Zein ibiltzen zen?

Taldetxo bat zegoen, Ski Clubekoak: Joaquin Elosegi, Limousin, Tuduri, Hekneby zen norvegiar bakarra... Emakumeak ere bai, elkarrean asko zeuden.

Eta non ibiltzen zineten?

Berastegira eta Aralarrera asko joaten ginen. Albira batez ere. Teleski bat jartzeko baimena lortu genuen, baina behin bakarrik erabili ahal izan genuen.



JOXEMI SAIZAR

Nolakoa zen materiala?

Oso txarra. Loturak zurrunak ziren, burnizko piezak, zure botaren neurrira jarri beharrekoak soldaduta. Beste inork ezin zituen erabili. Hezurra haustea oso erraza zen. Orpoan jartzeko malguki sistema atera zenean asko aurreratu zen.

Zein zen elkartearen aktibitatea?

Gure garaian elurretara autobusak antolatzea, Aralarrera (Baraibar, Berastegi, Uitz) eta Inauterietan

Candanchura. Baina 30. hamarkadan Austriara irteera bat antolatu zuten. Eta Candanchu hotela erakiki zuten. Gerra iritsi zen inaugurazioaren hurrengo urtean, militarizatu egin zuten, Mendiko Eskola montatu eta Tuduri instruktore jarri zuten. Gerra ondoren ez zen horrelako ekimenik izan.

Nola joaten zineten Aralarrera?

Orendaingo autobus zahar batean, baina elurretarako oso ona, ondo igotzen zena. Donostiako Vasco de Camping-ekoei berriz, gehiago kostatzen zitzairen, irristatu egiten zelako. Lekunberri gure zain egoten ziren, bidea irekitzen genielako.

Zein eski mota egiten zenuten?

Aralarren iraupen eskia. Horretarako oso egokia da. Candanchun pistakoa. Eta lehendik, elkartearen lehen urteetan, jauziak ere egiten zituzten.

Konpetizioan aritzen al zineten?

Lehendabiziko saioa, 50. urtemuga ospatzeko, Aralarren antolatu nahi izan genuen, baina ez zuten elurrik egin. Zeharkaldiak egiten genituen: Amezketatik, Lakuntza-

tik, Uharte Arakildik, Etxarri Arandatik...

Zein ziren elkarteak eskiazaile onenak zure garaian?

Iraupen eskian batez ere David Hernandez, gero Jose Luis Lekuona eta horiek.

Eta nola izan zen elkartearen desagerpena?

Gainbehera izan zuen, autobusak antolatzeari utzi egin genion eta 1958an Alpino Uzturre sortu genuen indar handiz eta eskiazaile onenak han sartu ziren.

Nola sortu zen Alpino Uzturre?

1953ko uholdeen ondoren Berazubi Frente de Juventudesen eskuetan uztea proposatu zuten, mendizaleak ez zeuden ados eta atera egin ziren. Ski Club Tolosanon sartzeko saio bat izan zen, bainabazkidetaz zuten mendian federatu nahi izan eta eski munduan jarraitzea erabaki zuten. Pena izan zen, bestela elkarte bizirik mantendu eta laster 100 urte beteko zituen. Elkarte berri bat sortzeari ekin genion eta Alpino Uzturre elkarte sortu genuen. Horrek mantendu egin du eski giroa.

Merkatu Txikirako material bilketa hasi dute jada

Gizartea » Urtero bezala Amaroako Auzo Elkarteak antolatatu du, Nikaraguako heziketa proiektu bat lagundu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Amaroako Auzo Elkarteak urtero antolatzen duen elkartasun Merkatu Txikia laster izango da zabalik. Hilaren 11tik 14ra, biak barne egongo da jarrita, Tolosako Kultur Etxean. Dena den, bertan saltzeko material bilketa hasia dute dagoneko. Nahi duen orok etzira arte izango du aukera, liburuak, diskoak, arropa eta abar eramateko. Honetarako, zabalik izango dira Amaroako auzo elkartearen lokalak, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Diru ekarpenak egin nahi dituzte-

nentzat berri, kontu bat ireki dute Kutxan. Hau da bere zenbakia: 2101.0081.15.012441078.8.

Nikaraguako emakumei laguntza

Aurten zazpigarren aldiz babestuko dute Amaroako Nikaraguako heziketa proiektu bat. Herrialde honetako zonalderik txiroenean, Mapaisillon, *Xochilt Acalt* izeneko Emakume Antolatuen Zentroa garatzen eta bultzatzen ari den ekimena, hain zuzen ere.

Proiektu hori urtetik urtera ari da bere fruituak ematen, eta oraingo honetan 20 emakumerentzako bekak edo finantzabideak lortu nahi dituzte. Emakume horiek tolosarren laguntza eta elkartasunari esker ikasketak prozesu baten barruan daude sartuta, batzuk alfabetatzen, beste batzuk lehen

mailako ikasketak egiten eta beste-ak bigarren mailakoak. Aurten Al-baitaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketak egingo dituzte. Zentro horretako garapen prozesuan sartuta dauden emakume hauetako asko, proiektu honi esker, aldatu egin dira egoeraz. Lehen, lurrin-gabeko nekazaritza jernalariak ziren eta beraien soldata uzta sasoiari lotuta zeukaten. Orain, aldiz, ekoiz-leak dira, produktu desberdinak ekoizten dituzte. Horien artean, arrautzak, esnea, okela, artoa eta barazkiak. Gainera, beraien ekoiz-peneko lursailen jabe bihurtu dira. Are gehiago, abeltzaintzan ere sartu dira.

Aurten 20 emakume horiek egin behar dituzten ikasketen gastuak 7.136 dolarrera iristen dira, hau da, 6.000 euro, gutxi gora behera.



Hirukidek antolatuta, bertso afaria

KULTURA » Joan den ostiralean Hirukidek antolatuta, bertso afaria ospatu zuten Gure Txokoa elkartearen. Bertan egun Gipuzkoako txapeliduna den Aitor Mendiluze, Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Go-

rostidi ari ziren bertsoan, bi ordu luzez. Hasiera batean euren kaxa jardun ziren eta ondoren han bildutakoek jarritako gaien inguruan. Bertso afaria Hirukideko Gurasoen Euskara Batzordeak antolatu zuen. HITZA

Saskibaloia teknifikazioarako jardunaldiak gazteentzat

Saskibaloia » Hilaren 16an izango dira Usabal kiroldegiko beheko kantxan; Tolosaldeko edozein joan daiteke.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Tolosako Adiskideok kirol elkarteak Saskibaloia Teknifikazioarako jardunaldiak antolatu ditu. Hauek hilaren 16an izango

dira, 10:00etatik 12:00etara bitartean, Usabal kiroldegiko beheko kantxan. Ekimen hau datorren urtean infantil mailako lehen urtean ariko diren mutilentzat zabalik dago, 1996an jaiotakoentzat hain zuzen. Nesken kasuan, datorren urtean infantil eta kadete mailetan jokatu dutenak daude deituta. 1993, 1994, 1995 eta 1996an jaiotakoak. Prestakuntza lanak bertako entrenatzaileak egingo ditu.

Saioak irekiak izango dira, be-

raz, Tolosaldeko ikastetxe guztietako gazteek hartu ahal izango dute parte bertan.

Antolatzaileen esanetan, «saskibaloia beste modu batera ezagutzeko aukera bikaina» da proposatutakoa. Informazio gehiago nahi duenak Tolosaldeko Saskibaloia taldearen webgunean lor dezake. Hau da, www.takesb.com webgunean. Baita mezu bat idatzita takesb@takesb.com helbide elektronikora.

TXOTX

Urbite

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajajerregia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@lajajerregia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 624 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Txopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (txopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi


Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurutzeta.com
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com Astigarraga



Anotako kiroldegian, LHko eta DBHko ikasleek emakume nabarmenak buruz egindako erakusketara jarri dute. I. GARCIA

PAUSOZ PAUSO

Emakumearen Nazioarteko Eguna Martxoaren 8a gainean dago eta emakumearen egoera islatzen duten datuak kez dira baikorrak.

N. URIBIDI - N. GARCIA

LA Bek osailaren argitaratutako datuen arabera, emakumezkoek gizonenak baino %34,7 gutxiago irabazten dute lanean, %84k kontratu partzialak dituzte eta zuzendari-karguak dagokienez, emakumezkoek lanpostu huan %15 besterik ez dute betetzen (gizonenak %55). Biztanleria aktiboari buruzko inkestaren arabera gizonenak %69a da aktiboen emakumezkoen kasuan %49.

Josebe Iturrizok, Tolosa Udaleko Berdintzen Tolosa-rikoak, datu hauek interpretatu ditu. «Emakumeek Eskal Hertzian gutxiago kobratzen dugut, gutxiago promozionatu gara eta bizitza pertsonala eta lan mundua konzentzitateko arazoak dituguz», dio Itur-

an. Promoziozako arazoak daukatela azaldu du. «Enpresa heren gora igotzeko zailtasunak daukagu. Zuzendari karguetan dagoen emakume batek berebizitza pertsonalari uko egin dion emakume bati, bainagonezkoek ez dute hori horrela bizi, emakume bat baitaizkate atzetan. Gu beti erdibidean gaude, etxean eta lanean». Honetaz gain, emakumezkoek lana egin arren ere, soldatan ezberdintasun hori dela medio, «senarra da oraindik soldatari-rik dirusua eta ez dalarik. Emakumearen laguntza beti izan ohi da eta horrek ere bilote harremanen eragina izan ohi du».

Autonimia aurrera
80. hamarkadatik gaur arte bide luzean egin dute emakumeen eskubiden alde, egiturazko autonomia hiri bideetatik. Frankismo garatan emakume batek senarrairekin sinatu behar zuen kontratua berriz ezin zuten bere buruak erabakitzeko, aldi berean, emakumeek etxetik kanpo lan egiteko ondan autonomia irabazi dute dio Iturrizok, «bainagonezkoak ez dira etxera sartu». Inurrioren ustez, emakumeek etxetik kanpo otera ondoren estatutak haurtzaindegia, umentezako jantokiak eta horrelakoak zabaldu ditu, bainagonezkoen kontziliazio lanaren beharra azpimarratu du. «Etxeko lana ez da baloratzen, eta dalaun balioezko lana behar zaio. Aldiz, erregulazio berak emakumeen lan egiteko eragozketak dituzten emakumeak dirala nabaritzen dituztenak. Eta etxeko andreak direnak, egun osoan lan egin arren, ez akitibotzat jotzen dituzte».

Etxeko lanen garrantzia
Josebe Iturrizok etxeko lanak daukaten balioa eman behar zela azpimarratu du. «Ana Perez izaneko ekonomialari batek hori oso argi azalduen da jasagarriaren buruz egin duen tesian. Bertan dio ez badugu onartzen ekonomian eragin emakumezkoen egitea dugun lana, alako. Pentsa, emakumeek etxean egin ditugun lan egitea ditugun lanak erdian zentratu ditugu publiko behar diren».

«Orain emakumeek titulartasuna eskatzen dute»

MAIDER ARAMENDI | EBELeko koordinatzailea

Aitzo «Emakumearen egoera gaur egun, eta batez ere baserriaren» hitzaldia emango du Maria Garciaekin batera.

N. URIBIDI - N. GARCIA

MAIDER ARAMENDI (Tolosa, 1975) EBELeko koordinatzailea sindikatuak da. Bihar Aitzoko udalekuten hitzaldia bertan emango du egungo emakumearen egoera eta emakume berriratuaren egoera artikulatu. Maria Garciaekin batera artikoa (Bilgune Feminista). **Iaz emakume berriratuaren egoera hobera egin zuen aipatu zer nuten. Nola dago gaur?** Basoa, bainu errekonoizimendua falta da. Etxeko marra beti emakumeekin eraman du, eta etxeko arretzat dago hartua, eta ez baserri-arena. Hemendik aurrera arazoak aitzortzen dira, auto-erregulazioak, arazo psikozikoak, bizi-aldia finkatu izan dira, eta gelditu egingo dira, frenta.

Eza sektoreen aldetik? Sektoreen aldetik errekonoizimendua falta da. Sektoreetan emakumeek duen parte-hartzea ez da kontuan hartzen, baserriaren duen lan hori ez da ikusten. Parte hartu behar dago erabakiak hartzeko gaitarritu, baserriaren postuak ondo kalifikatuak egoteko.

Iaz parte-hartzea oinarri hartuta lasa parte-hartzea oinarri hartuta dago? Parte-hartzea marxin jarri ginen EBEL-EHNE kidekin, emakumeek parte-hartzea bere osotasunean sindikatu eta gizarie ematen duten egoera, bere, bi lan gutxienez. Arazo desberdin partzialak izatea garrantzitsua da. Inurrioren ustez, gizonen egoerako lana izusi behar dute, dena ez baita bulegatuaren konpon-tzen. Janera hobe mugatzen gaitarritu, gero soziazional iragarri-rik daude. Lortu behar den errekonoizimendua, eta hobe berditasuna dakar, eta hau da bide bakarra, prozesu motela, bai-bakarra.

Emakumeen aldetik interes eta kontzentrazio gehiago dago, baina politikorik dago gauza hauek.



N. URIBIDI

Hala ere, hantzetatik ere jasotzen dituzte instituzioetatik. Hertzian lanean biltzen lanetan. **Emakume langile hauen interesa zertan oinarritzen da?** Gero eta emakume baserriar gehiago titulartasuna eskatzen dute, hori interesatzen da. Hala ere, kotilarik gehiago dago oraindik titulartasuna. Beraz, aldekatik ematen ari dira, bainuak dute bostan lotzen den zerbitzu berditasuna. Aitzera deitu behar da batak ez dira irakizten, eta beste batzuk, berit, balbeberaz.

Zain da zien erroka? Beti duta errealen irakurketak eskatu dugu baina ez zaigu ematen, ez baita interesatzen. Baserriaren atzetik dirua dago, berditzen gaitarritu ere da, datuak orokortzen eta ginekologik egiten interesatzen zait.

EGITARAZIAK

Martxo 5, gaur

Anoeta. Ikastolako LH eta DBH-ko ikasleak erakusketak. Emakume nabarmenak hitzaldiak zuzen egonari desberdinetan. Kusa kiroldegian erakusketak.

Martxo 6, bihar

Aitzo. Udalekuten hitzaldia: Emakumeen egungo egoeraren irakurketa eta berezi, emakume berriratuaren. Maider Aramendi (EHNE) eta Mariu Garcia (Bilgune Feminista).

Martxo 6, larunbata

Aduña. 19:30ean kalle tertulia kultur arloan Bilgune Feminista-ko kide batuzten hitzaldi interesegarria parte-hartzailea, Kultur Arloan. 20:00ean, Berdintzenaren aldeko elkarretarata, herriko plazan. 21:00etan, afaria Uztartzen.

Martxo 7, etzi

Abitziri. 20:00etan antzerkia: Baserri baserri, EBELeko antzerkizutua, Kultur Etxean, irekia da. Ondoren, afaria Herri Etxean ja-

lanean. Izen-ematea udalekuten: 943 65 44 26, edo Ane Urangari eskand. Epeko gaur bukatzen da.

Aleja. Gizonen egoera antzezina Kultur Etxean, 22:30ean. Gaur eta bihar Gaztelaren jardunaldi feministan inguruko erakusketak.

Eskola. Hitzaldi irekia: Zer jan hala bozi, Arantxa Lorenzo dietariaren Kultur Etxean, 17:30ean.

Leiza. Bolibolaren sistema irakurketa eta potterkioz suntuak lelopean, elkarretarata eta institutuan, 11:55an.

Zuzenki. Marimendi proiektioa eta hitzaldia 19:30ean, 40 urte inguruko emakume talde batek egindako ekitaldi onariztat hartuta.

Martxo 9, igandea

Aduña. 10:00-12:00. Baserri-pia saio kiroldegian. Doan. Izen ematea udalekuten edo kiroldegian bihar arte. 20:00ean afaria Buztina jaiatean 15 eurotan. Izen-ematea udalekuten edo kiroldegian bihar arte. 22:30ean Joneren kontzertua.

Martxo 10, astelehena

Tolosa. Emakumezkoen Gomaizko Pateketa 1. DV Sari. Beotibarren, 13:00etan. Zinea, XXV, Leidorren, 19:30etan eta 22:00etan.

Martxo 13, osteguna

Tolosa. Lady Chatterley, Leidorren 19:00etan eta 21:55ean. Ohara, 20:00etan filmak Kultur Saioak, zineklubaren bertan dabilan saria iragurtzen antolatuta.

tolatu du, eta Kubak lagundu. Afaria Arregi latorbean 21:00etan.

Elduain. Sagardotegi afaria, irekia. Kortzeju taberaren, 21:00etan. (Antolatzailea Udala).

Ikategieta. 13:00etan plazan elkarlaku dira, irakurketa eta bi emakume bertolari zango dira.

Leiza. Atakabetezik bizikleta marra aldarrikatzailea, 17:00etan, 19:00etan elkarretarata Lopezko buruari. Feministatik hitzaldiak antolatzaileak. Kaste Abertzaiek, Bilgune Feminista eta Gaite Asanblada.

Lizartea. Bertso afaria, Lizaso eta Egitarren. Manolo Bazarren suntuaren laguntza ere bai. Gaiak: Emakumeen eguna, hauteskunde bapera, herriko gorabeherak. Bihar iten da zena emakole epea.

Tolosa. 09:45ean Bentaunditik autobusa Hondarribiko Behoko Ertza baserri astatuko di-ol-bondok kusi eta prozesu eragutza. Txingudi ibaian buelta egin ondoren bazkaria (interesa) EHNEko bulegatu eman behar

du zinea, gaur: 943 65 42 81, 13:00etan elkarretarata Triangulion, 21:00etan bertan afaria Aiaia Martin eta Karmele Nobeletan bertolarien, Orgin, Izen-ematea: 635 708 593.

Martxo 10, astelehena

Tolosa. Emakumezkoen Gomaizko Pateketa 1. DV Sari. Beotibarren, 13:00etan. Zinea, XXV, Leidorren, 19:30etan eta 22:00etan.

Martxo 13, osteguna

Tolosa. Lady Chatterley, Leidorren 19:00etan eta 21:55ean. Ohara, 20:00etan filmak Kultur Saioak, zineklubaren bertan dabilan saria iragurtzen antolatuta.

emanalditirako
2 sarrera pare
zozketan
kilometroak 08ren alde
Pirritx eta Porrotx
deitu eta eskuratu!
Martxoak 8, larunbata
17:00etan eta 19:00etan • Tolosako Leidorren

4 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu
BRUESA GBC
Aguas de Valencia
OSTIRALA
MARTXOAK 7 - 20:30
ELUNE

Bete itzazu urteak hitzarekin
Harpidetza eskaintza berezia
HITZAren harpidedun egin zaitze martxoan, eta bi opari hauetako bat jasoko duzu.
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA



Ttottonoldegi taldekoak, txapela jantzita, bukaerako bertsoa egitean. ZUZENE AMASORRAIN

Beterriko I. Bertsolari Txapelketa arrakastatsua

Kultura » Ttottonoldegi taldeak irabazi du; «lehia sanoa izan da bertsolarien artean», esan du Amaia Agirre antolatzaileak.

IMANOL GARCIA

Antolatzaileek, bertsolariek eta ikuslegoak bat egin dute: Beterriko I. Bertsolari Txapelketa arrakastatsua izan da. Hori gertatzeko formula hauxe izan da: bertsolari gazte eta maila onekoak bildu, taldeka jarri eta ariketa bereziak prestatu. «Txapelketaren konplizeak izan dira bertsolariak, lan asko egin dute eta horrek asko lagundu du arrakastatsua izan zedin», azaldu du Amaia Agirre, Txapelketaren diseinatzaile eta antolatzaile lanetan aritu dena.

Finala larunbatean jokatu zen eta bertan Ttottonoldegi taldeak irabazi zuen. Berrobin jaiotako Unai Muñoak, Nahikari Gabilondok eta Iker Zubeldiak osatzen zuten talde irabazlea. Azpitxapeldua Zilarriturri izan da, hots, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi eta Iñigo Izagirre. Epaila la-

netan aritu zirenek boto bana eman zieten finalistei. Beraz, entzulegoak erabaki zuten bere botoarekin zein izan zen den Beterriko Txapelketa berri honen lehen irabazlea.

Txapelketa izena izan badu ere, ez du izan ez formatuan ez eginbeharreko lanean, lehiaketa baten itxura. Eta hori guztia nabaritu da, bertsolariak ez baitira lotuta aritu eta giroa oso ona izan delako. «Lehia sanoa izan da bertsolarien artean», azaldu du Agirrek. «Elkar ezagutzen dute eta Txapelketa osoan zehar elkar zirikatzen aritu dira».

Helburuak beteta

Manuel Larramendi Bazkuna izan da Txapelketaren bultzatzailea. Jon Unanue Bazkunako lehendakariak azaldu duenez, bi helburu zituen Beterri Txapelketa: «Alde batetik, 25-32 urte bitarteko bertsolariei bidea ematea jendeurrean aritzeko, ez baitute plaza aritzeko aukera asko. Bestetik, Beterri eskualdean bertsozaletasuna suspertzea, egutegian saio gehiago izanez, eta normalean bertso saioetara joaten direnak

erakarriz». Unanuek gaineratzen duenez, helburu horiek bete dituztela uste dute. «Laster bilera bat egingo dugu Txapelketaren balantzea egin eta etorkizunera begira nola antolatu daitekeen ikusteko. Seguruena urtero antolatuko dugu, baina erabakitzeke dago».

Amaia Agirre aritu da antolaketan lanak egiten eta Iker Iriarte eta Jon Zaldúa gai-jartzaileekin batera ariketak prestatzen. Txapelketa arrakasta bertsolarien partehartzean oinarritu du: «Lan handia egin dute. Agurrak prestatzen aritu dira buru-belarri eta talde dinamik handiasortu da beraien artean. Hain justu horixe lotu nahi genuen txapelketa taldeak egitera. Hasieratik bat egin dute antolakuntzatik aurkeztu dizkiegun proposamenekin».

Agurrak izan dira lehiaketako protagonistetako bat. Finalean, Zilarriturrikoak politikariz jantzi ziren eta beraientzako botoa eskatzu egin zuten agurra. Ttottonoldegi-koak, berriz, barraskiloz jantzi ziren eta «barraskilo zopea» abestuz giro ederra jarri zuten. Talde bakoitzak etxetik ekarri behar zuten agurra prestatuta eta umorez zipriritindutakoak izan direnez, gero saio guztia baldintzatu zuten onerako.

Txapelketa berezia izanik, sariak ere bereziak izan dira. Irabazleek, txapela jasotzeaz gain, 150 euro jaso dituzte. Txapelkunordek Joxe Bixente Agirrek egurren egindako oroigarria jaso zuten. Eta, azkenik, txapelketan parte hartu duten guztiek zein gai-jartzaileak eta epaileak sagardotegi batean bazkaldu ondoren landaetxe batean pasatuko dute asteburua. Ez da zaila asmatzea bertso bat baino gehiago entzungo dela bertan.

Galarragaren aurkako euroagindua, onartuta

Villabona » Hiru eguneko tramitazioaren ondoren, hamar eguneko denbortartean atxilotu dezake Frantziako Poliziak.

ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga billabonatarren aurkako euroagindua onartu du Frantziako justiziak. Galarragaren abokatuari atzo eman zion Pauko auzitegiak ebazpenaren berri. Hiru eguneko tramitazioa pasatu ondoren, 10 eguneko denbortartean, hau da, hilaren 7tik 17ra bitartean, atxilotu dezake Fran-

tziako Poliziak eta Espainiako Justiziaren eskuetan utzi.

Espainiaratzea gauzatzaren denean, zein espetxera eramango duten eta epaiketa noiz egingo den informaziorik ez dute senitartekoek. Galarragari ETArekin kide izatea leporatzen zaio. Villabonan senideek eta lagunek egindako prentsaurrekoan, euroaginduak «inolako funtsik» ez zuela salatu zuten eta bertan behera gelditu zedin eskatu. «Enekoren bizitza erabat publikoa izan da Ipar Euskal Herrian. Semea izan eta familia osatu du, lan egin du eta gizarte segurantzara eta guzti zuzen», zehaztu zuten agerraldian.

Laburrak

Loatzoko ikasleen emanaldia udaletxean

ANOETA » Kultur Astearen baitan, Loatzoko musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute gaur, 18:00etan, udaletxearen areto nagusian. Bertan parte hartuko dute Andoaingo Piano Jaialdian eta Arrasateko Eskusoinu Lehiaketan parte hartu zuten ikasleek.

Remelluri upategira bidia antolatu dute

TOLOSA » Herriko gazte talde batek Arabako Errioxan dagoen Remelluri upategira bidia antolatu dute hilaren 8rako. Egun horretan 09:00etan aterako dira autobusean Zumardi Txikitik. Hamaiketakoa Jilaba upategian egingo dute eta gero Remellurin izango da bazkaria. Ardoa dastatzeko aukera ere izango da. Bidaiaren prezioa 60 eurokoa da, guztia barne, eta izena emateko 665 75 28 69 zenbakira deitu behar da.

AHTren aurkako eguna antolatzeko bilera

IBARRA » Tolosaldeko gazte asanbladari eta gazteei deia izaten da Abiadura Handiko Trenaren aurkako aldarrikapen egun bat antolatzeko. Ideiak biltzeko bilera egingo dute, gaur, Ibarrako Gazte-txean, 19:00etan.

Udalbatzak ohiko osoko bilkura egingo du gaur

VILLABONA » Ohiko bilkura egingo du, gaur, 20:00etan, Udalbatzak. Bertan ondorengo gai-zerrenda landuko dute: aurreko bilkurari dagokion akta onartzea (otsailaren 13koa); Subijana etxearen erabilpena Euskal Herriko Bertsotze Elkarteari behin behineko lagatzeko proposamena; eta erreguak, moziok eta galderak.

Jesusen Bihotza bere webgunea abian jarri du

VILLABONA » Jesusen Bihotza Ikastolak bere webgunea abian jarri du eta bere helbidea www.jesusenbihotzaikastola.com da. Ikastolatik azaldu dutenez, «web orria, oraindik xumea bada ere, poliki-poliki elikatzen joango da, informazioa gero eta zabalagoa eta osatuago eskainiz». Bestalde, aurrematrikula martxoaren 31tik apirilaren 11ra izango da. Familia liburua, kontu korronte zenbakia eta ikaslearen argazki bat eman behar da horretarako eta Villabonako Zentroko idazkaritzara joan behar da, bestalde, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte: Txerminen, martxoaren 12an, 12:45ean edo 17:15ean; Zizurkilen, martxoaren 13an, 12:45ean edo 17:15ean.

Pazko astean ludoteka antolatu du Udalak

ANOETA » Pazko astean ludoteka antolatu du Udalak. Martxoaren 25etik 28ra izango da, 11:00etatik 13:00etara. HHTetik LH5era bitartekoek parte hartu dezakete. Hiru eurokoa da prezioa eta izena ematea udaletxean edo kiroldegian egin daiteke, hilaren 7ra arte. Bestalde, Udalak begiraleak behar ditu ludoteka horretarako zein udaleku irekietarako. 18 urteko aurrera izan behar du izena eman nahi duenak. horretarako udaletxera edo kiroldegira joan behar da, hilaren 7a arte.

@ Bideoak. HITZAren webgunean bideoak ikusteko aukera dago. Inauteriak, politika, AHT, musika, hizkuntza... dira atalaren gaiak. Beste hainbat atal ere bisitatu daitezke webgunean eta bertan parte hartu. Esaterako, eztabaidetan eta inkestetan zure iritzia eman dezakezu.

www.tolosaldeko-hitza.info

DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08_1)

Izaera dinamiko eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabilta. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeraturako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokien, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten araberako komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako gizabaliabideak@jarduna.net HELBIDE ELEKTRONIKORAK. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.



Eusko Alkartasunaren lau zinegotziak herenegun, Mila Garciaeren lekuan, Ion Ander Bastarrika. ASIER IMAZ

Alderdien ilegalizazioak eta Emakumearen Eguna Ibarako ezohiko bilkuran

Politika » Ion Ander Bastarririk (EA) Mila Garcia utzitako lekua hartu zuen herenegun egindako bilkuran.

ASIER IMAZ

Udalbatza osoaren ezohiko bilkura egin zen herenegun Ibarako udaletxean. Bertan lau gai aztertu ziren, PSE-EE eta EB-Aralar alderdietako hiru zinegotzirik gabe, hauek ez baitziren bilkura aurrez. Azken hiru bilkuretan ez bezala itzultzailearen laguntzaz burutu zen herenegun ezohiko bilkura, aretoan euskara entzuteko aukera izan zelarik.

Ion Ander Bastarrika, EAren zinegotzi berria

Eguneko gai-zerrendaren lehen puntuan, Eusko Alkartasuneko Ion Ander Bastarririk zinegotzi kargua hartu zuen, Mila Garcia bere kargua utzi ostean geratu zen hutsunea betez. Ondorioz, herenegun EAren 4 zinegotzi elkartu ziren bilkuran, EAJren 4 zinego-

tzirekin batera. Aurkeztu ez zirenak, beste hiru zinegotziak izan ziren, Aitor Gonzalez eta Javier Placeres PSE-EE alderdikoak eta EB-Aralarren Francisca Sanchez.

Batetik bi batzorde eta lehendakari bera

Gai-zerrendaren bigarren puntuan Ogasun, Kontu eta Langileen batzorde bakarra bitan bereiztea bozkatu zuten EA eta EAJk, alde batetik langileena eta bestetik Ogasun eta Kontuen batzordeak sortuz. Bi batzorde hauen lehendakari posturako Juan Luis Cid, EAJren zinegotzia, aukeratu zuten.

Beste batzordeetako lehendakariak ere aukeratu zituen Udalak: Hirigintzan Francisca Sanchezek (EB-Aralar) jarraituko du. Obra eta Zerbitzuetan Luis Alonso (EA) izango da batzordeko lehendakaria; Nekazaritza eta Ingurugiroan Maria Victoria Rodriguez (EAJ); Kultura eta Gazterian Jose Ignazio Ayestaran (EAJ); Euskara eta Hezkuntzan Itziar Jauregi (EA); Kiroletan Juan Ignazio Arozena (EA).

Azkenik, Ongizate batzordea-

ren lehendakari bezala Aitor Gonzalez (PSE-EE) jarri zuten eta erabaki honek bilkura amaieran eztabaida sortu zuen, publiko artetik erabakia kritikatu izan baitzen; «Ongizate batzordea herritarrei gertutik eragiten dien batzordea da. Zinegotzi kanpotar bat jartzean batzorde buru, udal honek gai horrekiko duen sentsibilitate falta agerian uzten du, lotsagarria iruditzen zaib.

Emakumearen eguna eta ilegalizazioaren inguruan

Gai-zerrendaren hirugarren puntuan, Emakumearen Nazioarteko Egunari buruzko erakunde arteko adierazpena irakurri eta onartu zuten EA-EAJren zinegotzietatik.

Azken puntuan, Organizazio Politikoen lege kanporatzeari buruzko mozioa bozkatu zuten bi alderdiek, baietzkoa emanaz. Ondoren ANV-EAren mozioa irakurri zuten EAren zerrendakide batek eta hau ere bozka zezaten eskatu zien Udal taldeei. Kasu honetan, EA eta EAJren 8 zinegotziak abstentzioa bozkatu zuten.



Ettxeko olio tapoidun ontzietan bota behar da, irudian ikusten den bezala. A.I.

Bidarian etxeko olio birziklatzeko aukera

A. IMAZ

Urola Erdiko Mankomunitateak etxeko olio erabilia botatzeko edukiontzi laranja jarri du Bidaniako frontoiaren ondoan, sukaldeko olio birziklatzeko helburuarekin.

Orain arte hilerio furgoneta bat ibiltzen zen etxeko olio biltzen, hemendik aurrera edukiontziak beteko du funtzio hori, arduradunek azaldu dutenez, «horrela jende gehiagok birziklatu ahal izango du, hilean behin orduz gehiago batera egokitzea baino erosagoa baita Bidaniako frontoi aldamenera joan eta nahi denean edo ahal

denean etxetik olio bertara eramatea. Azken finean, jende gehiagorentzat zabaldu nahi da etxeko olio birziklatze zerbitzua».

Edukiontzi laranja goiko aldean ditu bi atetxo ditu eta bertatik etxeko olio tapoidun edalontzietan bota edo utzi behar da.

Zergatik birziklatu?

Edukiontzi biltzen den etxeko olio birziklatu egiten da. Ondoren Biodiesel ekoizten da, gasolio erabiltzen den moduan erabiltzeko, autoen erregai modura adibidez.



Irakurzaletasuna bultzatuz

IKAZTEGIETA » Gurasoak irakurle ekimen berezia izan zen atzo Herri eskolan. Aurten bost gurasok parte hartu nahi izan dute irakurzaletasuna bultzatzeko ekitaldi honetan eta euskara, gaztelera, ingelesa eta errumaniera izan dira erabili dituzten hizkuntzak. Irudian errumanierazko irakurketako une bat, Adriana Florea. NEREA URBIZU



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Idaia: 687 410 022. anoeta/idaia@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Idaia: 687 410 032. ibarra/idaia@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Jon Diaz eta Gregorio Eizagirre Talhi Taqui Essarha elhora egunkariaren zuzendariarekin eta bertako langile batekin. Eskuinean, Jon Diaz maratoian. HITZA



guntzea erabaki zuten 6.000 euro-rekin. Norbanakoek emanda edo Laskorain ikastolaren Merkatu Txikiaren bidez bilduriko diru horrekin 3 ordenagailu eramangari eta bestelako materiala erosi dute behar handia duen egunkariari laguntzeko.

1978an sortu zuten 16 orrialdeko egunkaria —horietatik 2 gaztelaniaz—, eta 91ra arte iraun zuen lehen faseak. 97an jarri zuten mar-txan berriro ere. 10.000 ale argita-ratzen dituzte. Bertako zuzenda-riak asko eskertu zuen eskual-dekoek emandako laguntza, «komunikabide garrantzitsua baita sahararentzat, eta aurrera egiteko laguntza behar dute».

«Egoerak okerrera egin du»

Eizagirrek eta Diazek eginiko bi-daian egoera gero eta kaxkarrago-an bizi direla nabaritu dute. «Aukera gutxiago dituzte, janari gutxiago dagoela nabari da, laguntzak gero eta urriagoak dira». Horregatik, Sahararen aldeko elkar-teko kideek espero dute «orain arte izan den bezala, eskualdeko jendeak saharar herriari laguntzen jarraitzea». Dena den, bene-tan garrantzitsua dena arazo poli-tikoa dela diote; «diruarekin edota janariarekin laguntzeaz gain, ez dugu ahaztu behar arazoa nondik datorren, eta Marokori sahararrak bakean uzteko eskatu behar dio-gu». Baina, Marokorekiko hase-rreaz gain, Espainiako Gobernu-arekiko haserre handia piztu dela azaldu dute; «PSOeren gobernu-a oso txarra izan dela beraiantzat kontatu digute».

Hurrengo bidaia

Bestalde, urtero bezala, egun gutxi barru, Aste Santuko oporraldian bidaia antolatuta dute Euskal Herri-tik errefuxiatuen kanpamentu-eta-rajateko, eta hor ere izango da euren familiei bisitan joandako es-kualdeko jendea.

Lasterka sahararren alde

Elkartasuna » Jon Diaz tolosarrak eta Gregorio Eizagirre leaburuarrak Saharako Maratoian hartu dute parte.

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako udaletxeko balkoian egunotan zintzilik ikus dezakegu Mendebaldeko Sahararen bande-ra, izan ere, otsailaren 27an, Sa-harar Errepublikar Arabiar Demo-kratikoa (SEAD) aldarrikatu zute-neko 32. urteurrena izan zen, eta sahararrei elkartasuna adierazte-ko jarri zuten.

Egun hori festa handi bat izaten da beraientzat, eta ekitaldi ugari osaturiko egitaraua antolatzen

dute. Horien artean, aurtun zortzi-garren urtez egin duten Saharako Maratoia dago, eta bertan parte hartu dute Jon Diaz tolosarrak eta Gregorio Eizagirre leaburuarrak.

Gero eta jende gehiago

Urtetik urtera parte-hartzea han-diagoa dela diote. «16 lurraldetako jendeak hartu zuen parte aurtun-goan, gehienak espainiarrak eta italiarrak, eta bertakoek, saharar-rek ere pixkanaka geroz eta gehiagok hartzen dute parte». Gainera, 10 kilometroko luzerako lasterketa saharar batek irabazi zuen; duela gutxira arte Nazioar-te mailan Marokoko selekzioarekin parte hartzen zuten, eta podium bat lortu zuen maratoi batean sahar-ako bandera ateratzeagatik errefu-

xiatuen kanpamentuetara bidalia izan zen.

Bitxikeria mexikar batek jarri zuela ere kontatzen dute: «munduko lurralde desberdinetako maratoietan parte-hartzeagatik do-mina bat ematen dizute, eta honek Saharakoan parte hartu zuelako lortu zuen, Afrikan lasterka egitea bakarrak falta zitzaizolako; oso poli-ta izan zen, kantatu egin zuelako saria ematean, eta munduan zehar sahararren egoeraren berri eman-go zuela esan zuen». Ekitaldian ze-har bizitu zuten beste une hunki-garri bat ere gogoratu nahi izan dute Eizagirrek eta Diazek: «Lur-ralde okupatuekin ere jarri ziren harremanetan, eta hain zuzen ere, Sultana Hayaren hitzak entzuteko aukera izan genuen; emakume ho-

nek duela gutxi galdu zuen begia manifestazio batean, eta kartzelan ere izana da». Tolosako Udalaren laguntza izan dute maratoian parte hartzeko, eta hori eskertu nahi izan dute, eta baita antolakuntza-ren lana ere, «dena oso egin baitzu-ten». Halaber, herritar guztiak go-mendatzen dituzte Saharako Ma-ratoian parte hartzera, «bertakoei laguntzeko modu bat izateaz gain, esperientzia oso polita baita».

Elkartearen proiektua

Errefuxiatuen kanpamentuetako bisitaren helburu nagusietako bat Tolosaldea Sahararekin elkar-teak bultzatuko duen proiektua berta-rik bertara ikustea zen. *Essahra elhora* (www.essahraelhora.net) izeneko bertako egunkariari la-

Z Zerbitzuak

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa. 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Ugaitz (Belauntza). 3 urte. Zorionak, etxekoan partetik eta bere arreba Maddiren partetik.

eskerrik asko?
Sarrera guztiak saldu ditugu!
Kilometroak 08ren alde
Pirritx eta Porrotx

IPARRAGIRRE
BAGARDOTEGIA
Apirilaren 26 arte ZABALIK eta botilan arte osoan
Osifraga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauze zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com